

J A C Q U E S G A I L L O T

Jacques Gaillot 1935.ean sortu zen, 1982.ean Evreux-ko apezpiku izendatu zuten eta, Vatikanoren erabakiaz, kargugabetua izan zen 1995.ean.

Gure garaiko gizona da eta, aldi berean, askatasun inbidiagarrizko eta barne bizitza sakoneko kristau ebanjelikoa, Asisko Frantzisko, Avilako Teresa eta Aita Foucault-en jarraitzailea.



Eliza ez dela bere baitan itxia egoteko, baizik eta besteen alde borrokatzeko, zokoratu eta baztertuen alde bereziki. Kontzientzi eragozle, preso, OLP eta mugimendu antinuklearraren alde azaldu da maiz. Abegitsu agertu da homosexualekiko, IHESari aurre egiteko preserbagailuen erabilera onartu du. Gizarte laikoaren berdintasunezko baloreak defendatzen ditu eta eskola publikoaren alde agertu da.

Aukerako zelibatoaren eta kristau ezkonduen apez izateko eskubidearen aldekoa da. Anai-arrebez osaturiko Elizarengan sinesten du eta Aita Santuarekiko elkartasuna adierazten du beti.

Liburuxka honek, Iruñean, 1996ko martxoaren 12an, "Gogoa" Foroak antolatutako hitzaldi batean Jacques Gaillotek esandakoa biltzen du. Hitzaldiaren ondoren euskaraz ematen ez dugun elkarrizketa egon zen.

ELIZA ZERTARAKO BEHARTSUAREN ZERBITZURA EZ BADAGO



HIRU GOGOETA ELIZARI BURUZ

Arratsalde on, esker mila etortzeagatik. Erakusten duzuen giza, izpiritu eta konpromezuzko esperientziak hunkitzen nau.

Elizari buruzko hiru gogoeta egin nahi dut:

Lehena: Elizak bizi den garaira egokitu behar du bere ueña aurkitzeko. Gertakariekin bat egiten duen Eliza. Ezaguna da zuentzat Vatikanoko II. Kontzilioaren esaldi eder hura: pertsonen poz eta tristeziak, larritasun eta atsekabeak... Elizaren poz eta tristeziak, larritasun eta atsekabeak dira. Gonbidatuak gaude hurbiltasunaren Eliza, elkarrizketaren Eliza, elkartasunaren Eliza izatera. Herriarengandik urrun ez dagoen edo harrotasunik erakusten ez duen Eliza, baizik eta herrian erroturik dagoena.

Joan den igandean Jesusen Ebanjelioaren pasarte eder hura irakurri genuen: samariarrena. Jesus beste biziak hitz egin baino lehen, putzuko urari buruz hitz egiten hasten da. Hortxe dugu elkarrizketa baten eredu, Jesusen topaketa emakume atzerritar batekin. Elkarrizketa horretan batek bestearengandik ikasten du; Elizak ere gauza asko hartu eta ikasi behar du gizartearengandik, sinestun ez direnengandik eta beste erlijioengandik.

Duela urte batzuk Puerto Printzipera joateko gonbitea hartu nuen, Aristide lehenakariaren inbestidura ekitaldira, hain zuzen ere. Egun hartan jendetza ikaragarria joan zen katedralera eta han nengoen ni beste apezpikuekin elkarrekin meza emateko; gonbidatuak katedralean bete zuten baina Haitiko jendeak kanpoan geratu behar izan zuten, Eliza bete zegoelako. Ateak itxi zituzten. Baina, hara non, kanpoan zegoen jendearen presioa hain handia izan zen non ateak ireki baitziren. Orduan polizia sartu eta ateak itxi zituen, baina jendetza presioaz ateak ireki ziren. Poliziak, ozta-ozta, berriz ateak itxi zituen. Eta nik nire buruari esaten nion: bai tamalgarria, atea jendearen aitzinean itxi beharra! Baina jendearen tinkotasuna oso handia izan zen eta azkenean, hirugarren aldiz, ateak irekitzea lortu zuten eta jada ez ziren berriz itxi. Eta, noski, ospakizunean zehar jendearen abarrotsa katedralean sartzen zen eta ezinezkoa gertatu zitzaigun ospakizuna egi-

tea ateak itxiak baleude bezala.

Niretzako irudi polita da. Elizak ateak itxirik dituenegaz ezin ditugu entzun egunez egun iristen zaizkigun oihu guztiak, gazteenak, pobreenak, langabezia daudeneak, gaixoenak... Gure bihotz eta buruak ez dira aldatuko, garrasi hauen aurrean entzungor jarraitzen badugu. Elizak kanpotik iristen zaionari kasu egiten dionean, orduan gu aldatzen gara, gure fedean, gure otolitzean, gure bizitzeko moduan eraldatzen gara. Eta uste dut egokitu zaizkigun garaiek zerbait berri batera garamatzatela eta horregatik garrantzitsua da aldaketa horiei, zeinu horiei, kasu egitea.

Elizari buruzko bigarren gogoeta. Behartsuen aldeko aukera egiten duen Eliza. Jakin badakizue Jesusen gizaki baztertuaren grina izan zuela; gizakia arriskuan zegoen tokietan egoten ahalegindu zela. Kanpora atera zen eta eragozpen guztiak gainditu zituen bide bazterrean zegoenarengana joateko. Nazaretoko sinagogan zegoela argi eta garbi azaldu zuen zein zen bere zeregina: "Ni behartsuei Berri Ona iragartzera etorri naiz". Ez zuen esan Berri Ona guztiei iragartzera etorri zela, baizik eta behartsuei. Behartsuenengandik hasten garenean, gure mezua guztienegana iritsiko da. Baztertuengandik hasten garenean guztiei begira jartzen gara. Jesusen Berri Ona hots egiten duenean, horrek pertsonen bizitzan zerbait gertatuko dela esan nahi du. Ezer gertatuko ez balitz, ezin liteke Berri Onarik izan. Jesusen zerbait aldatu behar duela adierazten dituzten ekintza eta gertakariak aurkezten ditu. Jesusen bere askatasun eta egiarekin erkatu nahi du jendea; etorkizuneko bideak ireki nahi dizkio, batez ere.

Jesusengana hurbiltzen denaren egoera edozein izanda ere, honek etorkizuna izango du. Horregatik garrantzi handia dauka Elizak behartsuen aldeko aukera egitea, aukera hori ez dezaten egin behartsuen lekuetan daudeneak bakarrik, Elizak berak ere egin dezala.

Orain dela urte batzuk Frantzia osoko espetxeetako kaperau guztiak batzartu ziren. Hunkigarria da Frantziako kaperau guztiekin elkartzea. Behartsuekiko ministeritzaren esperientzia izugarria daukate. Ebanjelioa bizitzen zuten apaiz zoriotsuak ziren, baina arrangura bat zeukaten. Ikusten zuten Eliza ez zela bere ministeritzaren bidez aldatzen. Hori zen beren drama. Haiek egiten zutenak ez zuten beren Elizabarrutien funtzionamendua ezertan aldatzen. Beharrezkoa da behartsuen jokatibideek eragina izan dezaten Elizaren ibilbidean. Beharrezkoa da pobreen aldeko konpromezuak eragina izan dezaten Elizaren funtzionamenduan, bai diruaren erabilpenean, baita aukeretan ere, beharrezkoa da pobreak Eliza alda dezaten.

Gure Elizabarrutiko Eliza oso pozik dago gu espetxeetan egoteaz, baina horrek Elizaren kontzientzia lasaitu besterik ez du egiten. Elizak sinesgarria izan behar du, sinesgarritasuna eskaini behar du egoera guztietan. Uste dut Elizak herriak sufriemendua pairatzen dituen lekuetan egon behar duela.

Hirugarren gogoeta. Elkarte txikien Eliza. Behin batean Taizen, gazte topaketa bate-



an, elkarte zer den galdetu genion elkarri. Neskato batek hitza hartu eta esan zuen: elkarte batean inor ez da beste kideen beldur. Nik uste elkartearen definizio oso ona dela. Beldurretik askatzen garenean, orduan hitz egiteko, konprometitzeko eta gu geuk izateko gai bihurtzen gara. Nire ustez Elizaren etorkizuna elkarrean etorkizun bera da.

Esperientziak esan dit elkarteak erne egon behar duela lau arlo hauen aurrean, elkarri eusten dioten lau zutabe hauen aurrean:

- Lehenbiziko zutabea anaitasuna da, adiskidetasuna eta maitasuna, alegia. Jesusek utzi zigun maitatzeko agindu bera: "maite ezazue elkar nik maite izan zaituztedan bezala". Zeinu horren bidez adierazten dugu Jesusen ikasle garela.

- Bigarren zutabea otoitza da. Hitzaren entzumena sakramentua da; kristauak otoitza egin, Jainkoaren Hitza entzun eta, sakramentuen bidez, Jainkoaren maitasuna eta bizitza hartzen dute. Eta iturri honek bizitzaren zentzua emateaz gain, karitatea uzten die bihotzetan.

- Hirugarren zutabea fedearen sakontzea da, fedearen formakuntza eta ulerkuntzarako ahalegina. Beharrezkoa da sinesmena gaur egungo galderekin alderatzea; bizitzak eta fedea elkarturik egon behar dute. Argi esan behar da fedearen ulertze sakona ez dagoela adimen handikoen eskuetan soilik, guztiok dugu helburu hori lortzeko eskubidea. Fede heziketa ez da kultura edo jakituria handia dute-nentzat bakarrik. Fede heziketak ikasketarik ez dutenen ondarea ere izan behar du, idazten ez dakitenen edo eskolara joan ez direnenak.

- Eta laugarren zutabea konpromezua da. Kristauak beste gizakie irekitzen diren pertsonak dira, ez diote bereari bakarrik begiratu behar. Beti besteen alde jarria behar dute, Jesus, Nazaretoko gizonaren antzera, besteendako gizona izan zena. Kristauak anai-arrebak zerbitzatzeko konpromezua hartzen dute.

Lau zutabe hauek dauzkan elkarteak Berrio Ona iragartzen du eta etorkizuneko itxaropen zeinua da. Zoritxarrez, badira anaitasun handiko diren baina otoitza egiten ez duten elkarteak. Beste batzuek, ordea, otoitza egiten dute, baina ez dute inolako konpromezurik hartzen. Eta, badira formakuntzari garrantzi handia eman, baina anaitasunik ez duten elkarteak. Ez da erraza aldi berean anaiakorra izatea, otoitza egitea, fedean hezitzea eta konpromezua hartzea.

Sarritan, Evreux-ko Elizbarrutian, ea zenbat apaiz neukan galdetzen zidaten eta nik erantzuten nien ea zergatik ez zidaten galdetzen zenbat elkarte neukan Elizbarrutian. Elkarteak Elizaren oinarria dira. Kristau elkarteetatik sortuko dira Eliz arduradunak baina, horretarako, elkarteak egon behar dira lehenbizi.

Herrialde askotan zehar ibiltzerakoan harrিতa geratu naiz elkarte aunitzen bizitasuna ikustean. Zer poza hartu dudan bidean dauden kristauekin, hitza hartzeko beldurrik ez dutenekin eta bai Elizan, bai elkarteetan, baita gizartearen ere, protagonista diren kristauekin topatu naizenean. Elizak ez ditu bere kideak haurrak baillirant tratatu behar, helduak bezala baizik. Nire ustez Elizaren berritze eta aldatzea oinarritik etorriko dira.

Nik ez dut uste Elizaren aldaketa handiak Apezpikuen bidez, Vatikanoren bidez, edo arduradunen bidez etorriko direnik, baizik eta kristau herriaren bidez; eta, nire ustez, elkarte hauek guztiak botako dituzte oraingo harresiak... Azken finean, herria izan da Berlingo harresia bota duena.

Esango nuke ez nagoela etorkizunaz edo Elizaren geroaz kezkatua; aukera eta baliabide aunitz baitago. Pozik nago ez daudela kristau asko Elizaren aurkako jarrera erasotzaileak hartzen ikustean. Batzuk etsita daude eta asko sofritzen dute Elizagatik baina, aldi berean, maite dute eta aldatua ikusi nahiko lukete. Ezagutzen ditudan kristau hauen artean egoera zailak bizi izan ditut, hileta elizkizunak presiditu behar izan ditut, adibidez. Oroitzen naiz eliza handi bat jendez gainezka, eta han behin ere elizara joaten ez zirengana hurbildu eta galdetu niela: zer dela eta zuek hemen? Eta ihardetsi zidaten: gaur ehortzi dugun horrek ez duela sekulan injustizia onartu eta injustiziaren aurka borrokatzen duenaren jarrera txalogarria da beti.

Garizuman zehar Isaias profetak idatzitako testu hau irakurri dugu: "ez bazara haien antzeko egiten Jainkoak deuseztuko zaitu..."

Kristauak injustiziaren aurka borrokatzen duenean, bere testigantzak sinesgarri bihurtzen ditu Eliza eta Jesusen mezua.

Esan nahi dizuet areto handi hau jendez beteta ikusteak biziki poztan eta indarbertzen nauela. Mila esker guztiok.